



4 leku ekonomia zirkularrerako:  
**leku\_ni**



## leku\_NI

leku\_TALDEA

leku\_ENPRESA


leku\_KOMUNITATEA

### leku\_NI EKINTZA:

Ekonomia zirkularreko proiektu bat hasi baino lehen, esperientzia honekiko gure harreman, esperientzia honekiko gure harreman, esperientzia eta helburuen inguruen hausnartu behar dugu. Berrikuntza ahalegin bat zuzentzerakoan jardungo garen lekuari buruz hausnartzea garrantzitsua da. Horretarako, hausnarketa bat proposatzen dugu, Iparorratz Zirkularra izena eman dioguna, #Oleku metodologia eta tresnak garatzen hasi baino lehen:

**Iparraldea (ikuspegia):** Zer eragin bilatzen dut, nire baitan, nire enpresa edo erakundeetan eta munduan ekonomia zirkularren arloan?

**Ekialdea (aukera):** Zer aukera ikusten dut gaur egun nire ingurunean ekonomia zirkularrari dagokionez? Zergatik uste dut proiektu hau garrantzitsua dela?



**Mendebaldea (asmoa):** Zer gaitasun eta ikaskuntza gustatuko litzaidake eskuratzea proiektu honen bitartean? Norekin partekatu nahi dut berrikuntza zirkularreko prozesu hau?

**Hegoaldea (esperientzia):** Zer harreman daukat ekonomia zirkularrekin eta gizarte- eta ingurune-berrikuntzarekin (bai profesionala bai pertsonala)? Zer da gehien atsegin dudana eta gehien kezkatzen nauena ekonomia zirkularreko proiektu bat hastean?

# 1

## Asmo zirkularra aktibatu


## #O prozesua [1.1] Zergatik gida

Ekonomia zirkularra gerturatu. Zergatik den beharrezkoa eta zergatik ari den indartzen.



# Zergatik EKONOMIA ZIRKULARRA







Gaur egun Lurrak birsortzeko daukan gaitasuna gailentzen ari gara.

Maila globalean **1,75** Lur planeta bagenitu bezala bizi gara.



Eskualde asko **defizit ekologiko** egoeran daude, haien ekosistemen degradazio progresiboa suposatzen duena.

Iturria: Global Footprint Network



Arazoaren erroan logika lineal batean oinarritutako ekoizpen eta kontsumo sistema bat aurkitzen dugu.

ERAUZI → EKOIZTU → KONTSUMITU → BOTA





Nola gelditu dezakegu endekapena eta nola birsortu ditzakegu gure ekosistemak? Ekonoia logika zirkular batetik birformulatzeko beharra daukagu.








### ERREFERENTZIAK ETA BALIABIDEAK

Urrats ekologikoa, Global Footprint Network (EN)  
[www.footprintnetwork.org](http://www.footprintnetwork.org)

Earth Overshoot Day (EN)  
[www.overshootday.org](http://www.overshootday.org)

Muga planetarioak, Stockholm Resilience Center (EN)  
[www.stockholmresilience.org/research/planetary-boundaries.html](http://www.stockholmresilience.org/research/planetary-boundaries.html)



# #O prozesua

## [1.2a] Egoera mapa

Mapa hau lan esparrura gerturatzeko lehenengo tresna bezala proposatzen dugu.

Lehenengo gauza jardungo garen sektorea eta jarduera zehaztea da, eta ahal baldin bada, produktu/zerbitzu zehaztea. Pentsatu jarduera/produktu honek sisteman daukan egitekoa eta nola sortzen den balio kate orokorra.

Ondoren, ekonomia zirkularrera aldatzeko beharra/aukera -ren ulermenaren lehenengo gerturaketa bezala, identifikatu beharrezko baliabide nagusiak eta jardueran sortutako hondakinak.


Saiatu baita ere pertsonengan eta planetan dituen eraginak identifikatzen, bai negatiboak bai positiboak.

Erakunde baten esparruan lanean bazaudete, pentsatu jada zuen eraginaren murrizketan aurrerapen garrantzitsurik lortu duzuen edo hobekuntza ziurtagiri edo sistematik ezarri duzuen (adibidez: EMAS, ISO14001, C2C, FSC, jokabide kodea...)

Lan-arlo batean kokatuta? Une egokia da ekonomia zirkularrera eraman zaitzaketen joerak interpretatzeko.

### EGOERA mapa

O-1. ASMO ZIRKULARRA PIZTU



# #O prozesua

## [1.2b] Joerak mapa

Behin lanaren testuinguruan kokatuta gaudela eta eraginari dagokionez egoeraren lehenengo diagnostia daukagula, noranzkoaren inguruan hausnartzeko une egokia da.

Ba al dago ekonomia zirkularra bultzatzen gaituen indarririk? Tresna honekin baliabideen erabilgarritasunaren, politika publikoen, enpresa-berrikuntzaren eta erabiltzaile eta herritarren lehenengo diagnostikaren aurreikuspenaren inuguran hausnartzera gonbidatzen zaitugu.

Saiatu arlo hauetan jarduten duten indarrak identifikatzen ekonomia zirkularerako aurrerapena sustatzeko.

Indar hauek zuen jarduera esparruan "olatu zirkular" bat sortzeko nahikoak direla uste duzue? Olatua jada sortzen ari da? Zein dar har dezakeen abiadura eta magnitudea zure ustez?

Ondorioa olatu bat datorrela baldin bada, litekeena da berrikuntza zirkularreko aukerak ikertzeko zuen asmoa piztea.

Modu honetan, ez dugu soilik olatuak gu zapaltzea saihestuko... olatua hartzeko eta surfeari aritzeko prest egongo gara!

\*Legegintzan egindako aurrerapenak ikertu ditzakezu Europar Batzordea, MITECO, Ihobe... web orrialdeetan.


**Europar estrategia:**  
[https://ec.europa.eu/environment/circular-economy/index\\_en.htm](https://ec.europa.eu/environment/circular-economy/index_en.htm)

**Spainiar estrategia:**  
<https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/economia-circular/estrategia/>

**Euskadi:**  
<https://www.ihobe.eus/economia-circular#normativa> (actualizado 2019)

### JOERAK mapa

O-1. ASMO ZIRKULARRA PIZTU



# #O prozesua

## [1.3] Asmoa irudia

Tresna hau banaka edo taldeka erabili dezakezu:

- **Banaka** prozesu honetara gerturatzen zaren motibazioak definitzen lagun diezazuke.

- **Taldeka** motibazio hauek partekatzen, asmo konbergente edo dibergenteak identifikatzen, eta asmo konpartitu bat sortzen lagun diezazuke prozesuari ekiteko orduan.

Ariketa honetara hurbiltzeko zure "zertarako" galdera laburtzen duen "funtsezko asmo" horretara iristeko, hurrengo hiru motibazioen inguruan hausnartzera eta hurrengo adieraztera gonbidatzen zaitugu:

- Zure **ERAGIN** asmoa
- Zure **NEGOZIO** asmoa
- Zure asmo **PERTSONALA**


### ASMOA irudia


O-1 ASMO ZIRKULARRA PIZTU

**ERAGIN ASMOA**

Zein eragin negatibo landu nahi dituzue ekonomia zirkularren ikuskerara aplikatuz?


Zein eragin positibo sortzea gustatuko litzazueke?





**ASMO PERTSONALA**

Zer da banako bezala prozesu honetan sartzera bultzatzen zaituztenak? LEKUetan sortutako hausnarketak partekatzeko une egokia da.



**FUNTSEZKO ASMOA**

Asmoa esaldi batean ipini beharko bazenu, zein izango litzateke?

**FUNTSEZKO ASMOA**

**INTENCIÓN DE NEGOCIO**

Zer motibatzen du zure enpresan ekonomia zirkularreko interesa. Zein onura mota aktibatzea gustatuko litzazueke? Hemen iradokitzen ditugunetatik, gehien identifikatzen zareten horiek adieraztea proposatzen dizuegu, eta zuen salerosketa asmoa formulatzea.

**SORTU**  
\_existitzen diren produktu eta zerbitzu berriak sortu.

**MODERATU**  
\_operaketa kostuak murriztu.

**GIRORATU**  
\_balio-katean salerosketa-ereduak eta harremanak onartu.

**BERRITU**  
\_berrikuntza produktu eta zerbitzu berrietan bultzatu.

**ERAKARRI**  
\_erabiltzaile eta langilekin harremana hobetu.

**EZBERDINDU**  
\_kompetentziatik ezberdindu.

**INTEGRATU**  
\_misioa eta estrategia lerrokatu.

**BABESTU**  
\_horrisketa linealen murriztasuna murriztu.

Iturria: WBICSD

**INTENCIÓN DE NEGOCIO**

Zer motibatzen du zure enpresan ekonomia zirkularreko interesa. Zein onura mota aktibatzea gustatuko litzazueke? Hemen iradokitzen ditugunetatik, gehien identifikatzen zareten horiek adieraztea proposatzen dizuegu, eta zuen salerosketa asmoa formulatzea.

# #O prozesua

## [1.3] Asmoa irudia

### BADAUKAZUE ASMOAREN IRUDIA!

Ikusgai dagoen leku batean ipintzea iradokitzen dizuegu, prozesuan zehar laguntzeko.


#### ASMOTIK AUKEREN IDENTIFIKAZIORA ARTE:

Aurreko "irudia"-n asmoa definitutako moduak hurrengo faseko (O-2 berrikuntza zirkularreko aukera aurkitzen) zein tresna izan daitezkeen garrantzitsuenak erabakitzen lagun dezake. Definitu duzuen asmoa aktibatzeak suposatuko lukeen eraldaketa mailaren inguruan hausnartzea proposatzen dizuegu.

- OPTIMIZAZIO OPERATIBOA
- ANTOLAKETA ERALDAKETA
- SISTEMA ALDAKETA

Behin bilatzen den eraldaketa maila identifikatuta, hurrengo faseko garrantzitsuenak izan daitezkeen tresnak erakusten dizkizuegu.

Zein eraldaketa mailan dago gure asmoa?



Hurrengo ataleko zein tresna izan daitezke garrantzitsuenak?

